



## TASAREN ORDAINKETA ETA SALBUESPENAREN INGURUKO OHARRAK,

### ORDAINKETA

Tasa 24,10 eurokoa da, eta bi modutan ordaindu daiteke:

#### 1.- INTERNET BIDEZ (Ordainketa Plataformatik):

Horretarako lehenbizi eskabide elektronikoa egiten hasi beharko da, helbide honetatik:

<https://debarrena.eus/eu/herritarrentzako-arreta-eta-tramiteak/tramiteak/lan-eskaintzak>

eta prozesuaren tramitazioan, tasaren ordainketa egiteko tramitean, ordainketa plataforma bidez egin ahal izango da.

#### Ohar garrantzitsua:

Tasa ordaintzetik salbuetsita daudenen kasuetan, tramitazioan tasaren ordainagiria erantsi ordez, ordaintzetik salbuetsita daudela ziurtatzen duen agiria erantsi beharko da. Horretarako, tasa ordaindu izanaren tramitean, "Tasa ordaindu izanaren egiaztatzea" aktibatu eta dokumentua atxikitu beharko dute.

Kontuan izan beharko da, eskaera elektronikoa egiteko, programak onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitarteko bat eduki beharko dela (B@kq, DNI-e, FNMT...)

Ordainketa egin ondoren, eta eskaerarekin jarraitu ahal izateko, **ESKAERARA ITZULI BEHAR DA.**

Ordainketa Plataformaren bidez eginez gero, ez dago aukerarik ordainketa hobaria aplikatuta egiteko. Sistemak soilik 24,10 eurotako ordainketa onartzen du. Horrelako egoeran izanez gero, itzulketa eskatu beharko da ondoren, adierazita eskaera zer prozesuri dagokion eta eskatutako hobarirako oinarri gisa balio duen dokumentazioa erantsita.

#### 2.-TRANSFERENTZIA BIDEZ:

Debabarrena eskualdeko Mankomunitatearen izenean dagoen kontu korrante zk. honetara egingo da transferentzia **izen-abizenak eta prozesua** adieraziz:

KUTXABANK: ES16 2095 5035 0410 6093 3891

Eskaera elektronikoki eginez gero, ordainketaren egiaztatzea erantsi behar da, beti ere pdf formatuan.

Era berean, hobariarekin ordaindu bada edo ordaintzetik salbuetsi bada, horren oinarri den dokumentazioa pdf formatuan aurkeztu beharko da.

#### TASAREN SALBUESPENA:

Tasa ordaintzetik salbuetsita daude:

## NOTAS SOBRE EL PAGO Y EXENCIÓN DE LA TASA,

### PAGO

El pago de la tasa, que es de 24,10 euros, se puede realizar de dos formas:

#### 1.- A TRAVÉS DE INTERNET (mediante la Plataforma de Pago):

Primero, habrá de empezar a realizar la solicitud electrónica, mediante el acceso electrónico a esta dirección:

<https://debarrena.eus/es/atencion-al-ciudadano-y-tramites/tramites/oferta-de-empleo>

y en la tramitación del proceso, en el trámite de pago de la tasa, el pago podrá realizarse a través de la pasarela de pagos.

#### Nota importante:

En los casos de exención del pago de la tasa, en la tramitación, en lugar de adjuntar el recibo del pago de la tasa, se deberá adjuntar el documento acreditativo de la exención del pago.

Para ello, en el trámite "Recibo pago", deberán activar la casilla "Justificante de pago de la tasa" y deberán adjuntar el documento.

Habrà que tener en cuenta que en caso de optar por la presentación electrónica deberá disponer de un medio de identificación y firma electrónica admitidos en la sede (B@kq, DNI-e, FNMT...)

Una vez realizado el trámite de pago y para poder continuar con la solicitud **HABRÀ QUE VOLVER A LA SOLICITUD.**

El pago mediante la Plataforma de pago no posibilita realizar el pago con reducción por bonificación. El sistema sólo admite el pago correspondiente a 24,10 euros.

Por lo que, en ese caso, habrá que solicitar la devolución por el importe de la bonificación indicando el proceso al cual se ha hecho la solicitud y adjuntando la documentación justificativa de la bonificación solicitada.

#### 2.- MEDIANTE TRANSFERENCIA BANCARIA:

Se efectuarà transferencia bancaria al siguiente número de cuenta a nombre de la Mancomunidad comarcal de Debabarrena indicando **nombre y apellidos y proceso al que se presenta:**

KUTXABANK: ES16 2095 5035 0410 6093 3891

Si se realiza la solicitud electrónicamente, se deberá adjuntar el justificante del pago realizado, siempre en formato pdf.

En caso de haber realizado el pago con bonificación o estar exento de ello, se deberá adjuntar la documentación justificativa en formato pdf.

#### EXCEPCIÓN DEL PAGO DE LA TASA:

Están exentas del pago de la tasa:



# DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea  
Mancomunidad Comarcal

a) Gizarte Segurantzako erregimenetako batean ere alta emanda ez egotea, edo, hala badagokio, mutualitate profesionalean, jardule gisa, edo, hala badagokio, enplegua hobetzeko egoeran, ondorio horietarako kasu hori honako egoera hauetakoren batean egotea: urtebetetik beherako iraupena duten iraupen mugatuko kontratuak, lanaldi partzialeko kontratuak eta hileko ordainsari garbia duten kontratuak, aparteko ordainsarien hainbanaketa barne, 1.200,00 eurotik beherakoa izatea.

b) % 33ko edo hortik gorako elbarritasuna aitortuta duten pertsonak, baldin eta elbarritasun txandarako lanpostu edo plazarik erreserbatzen ez duten deialdietara aurkezten badira.

Eskaera aurkezten den egunean familia ugariko kide izaera orokorra aitortua dutenek tasaren kuota % 50 murrizteko eskubidea izango dute.

Egoera horiek eskabidean egiaztatu beharko dira, dagokion dokumentazioarekin.

Eskabideak aurkezteko epean tasa ordaintzen ez bada edo osorik ordaintzen ez bada, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

a) No estén dados de alta en ningunos de los regímenes de la Seguridad Social o, en su caso, mutua profesional como ejercitante, o, en su caso, en situación de mejora de empleo, considerándose dicho supuesto a estos efectos, encontrarse en alguna de las siguientes situaciones: contratos de duración determinada con duración inferior a un año, contratos a tiempo parcial y contratos con una retribución neta mensual, incluida prorrateada de pagas extraordinarias, inferior a 1.200,00 euros.

b) Las personas que tengan reconocida una minusvalía igual o superior al 33 % y que se presenten a convocatorias en las que no exista reserva de puestos o plazas al turno de minusvalía.

Asimismo, tendrán derecho a una reducción del 50 % de la cuota de la tasa, quienes en la fecha de presentación de la solicitud tengan reconocida la condición de miembro de familia numerosa de carácter general.

Habrà que acreditar dichas situaciones en la solicitud aportando la documentación justificativa.

El **impago o pago incompleto** de la tasa en el plazo de presentación de instancias supondrà la exclusión del proceso selectivo.